

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 287. zenbakia. 2020ko martxoa

ITURRI



**Koronabirusak
kaleak hustu ditu**

LANBIDE HEZIKETA



BATXILERGOA

ATE
IREKIAK
APIRILAK
25

11:00etan

BATXILERGOA

ZIENTZIAK

GIZA-GIZARTE ZIENTZIAK

LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILAKOAK

BEROA SORTZEKO
INSTALAZIOAK
(iturgintza, eguzki
instalazioak, gasa)

MANTENTZE-LAN
ELEKTROMEKANIKOA

GOI MAILAKOAK

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

MEKATRONIKA INDUSTRIALA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA

AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA

EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

Lea Artibai Ikastetxea
Markina-Xemein
94 616 90 02 • info@leartik.eus



www.leartik.eus

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Maribi Carrillo, Montse
González eta CDC/ Alissa
Eckert, MS; Dan Higgins,
MAM.

LAGUNTZAILEAK:

Anaitasuna Ikastola,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentín Mugarza
eta Ainara Riveras.

ARGAZKIAK:

Anaitasuna Ikastola,
Naiara Bengoetxea,
Berbalagun,
Estibalitz González,
Valentín Mugarza,
Iker Olalde,
Ainara Riveras,
Libe Solozabal,
Dorleta Vidal
eta ZukAldatu.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ibon Txurruka
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturririk ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Erronda-kantua

Gure amama ganbaran dago

Gure amama, gure amama,
gure amama ganbaran dago
kartetako jokuan,
barriro bere, barriro bere
barriro bere egongo dira artatxorixak soluan.

Turan turan turan
panparrerria bagenduan jajai!
Turan turan turan
panparrerria bagenduan.

la ia ia ia
neskazaharraren fantasia,
hartzen bajonat ilintzia
berotukonat eperdia.

Erramillite erramillite
Santurtze, Bilbao, Portugalete.
Altza gerria,
date la vuelta Maria! Ja jai!
Altza gerria,
date la vuelta Maria!

Turan turan turan
panparrerria bagenduan jajai!
Turan turan turan
panparrerria bagenduan.

(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

**Koronabirusari aurre egiteko
indarrean dagoen alarma egoera
dela-eta, hilabete honetan
Drogeteniturrri euskarri
digitalean bakarrik kaleratuko
dugu. Datorren hilabetean
aldizkaria zuen esku artean
berriro egotea espero dugu.
Bitartean, etxean gozatu.**



Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Iker Olalde

Apirilean bi urte izango dira Dublinera joan zela. Zalantzekin hasieran, erraz hartu zituen mailetak mallabitar honek. Zailena, aldiz, bertako ohituretara moldatzea eta herrimina menderatzea izan zen.

- Zer dela-eta joan zinen?

Ingelesa garatzeko, batik bat ulermena eta ahozkoa. Gustatu arren, alferkeria hutsagatik ez diot inoiz garrantzirik eman. Horrez gain, abenturatxo txiki batzuk ez du minik egiten!

- Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Nire lagun bat hemendik zebilen, beraz herrialdearekiko aurreiritzi gehienak positiboak ziren. Beldur handiena zen, nahiz eta beti oso lotsagabea izan naizen, ingelesez komunikatzen hasia.

- Zerbaitek deitu dizu arreta?

Euskal kulturarekin antzekotasun batzuk ditu, eta folkloreak eta herri nortasunak bereziki atentzioa eman zidaten. Horren harira, ekintza politiko, sozial eta kultural asko daude ia astero hirigunean.

- Zelan moldatu zara bertako ohituretara?

Janarira moldatzen saiatu naizen arren, ezinezkoa egin zait hainbeste gurin eta patata jatea. Harremani dagokienez, hemen kuadrillatxo bat daukat, ia-ia hasieratik mantendu izan duguna. Hiria handia denez, leku ezberdinetako jendea ezagutzeko aukera dago, eta oso positiboa da niretzat. Eta jarduera kulturak anitzak direnez, astero dugu gauza ezberdin bat egiteko aukera. Dublinen geratzeko arrazoi garrantzitsuetako bat izan zen hori.

- Ondo moldatzen zara bertako hizkuntzarekin?

Hasieran nahiz eta ulertzen zaila izan, ingelesa egunero erabili eta entzutez berehala moldatu nintzen. Zailena, beharbada, hemengo azentua izan zen. Horrez gain, irlandera ere erabiltzen da leku batzuetan. Ofizialak dira biak, bai-

na Dublinen gehiengoak ingelesez egiten du beti.

- Zerbaite botatzen duzu faltan?

Kuadrilla, familia eta mendiak. Oso lurralde laua da, eta inguruan mendi puntarik ez ikusteak batzuetan herrimina sortzen dit. Gainera, lagunarteko bazkariak, poteoa, etxeko janaria...

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Goiz altxatzen saiatzen naiz, eta azkenaldian eskalatzeko afizioa hartu dut; hori ez bada, bizikletarekin bueltatxo bat ematen dut. Ostean, lanera joaten naiz. Gauean, garagardo bat hartzera joan ohi gara, edo kontzertu bat ikustera, egu-

nero baitaude edozein tabernatan. Aisialdian deskantsatzea gustatzen zait, parrandak batzuetan... eta eurria eginez gero, irakurri edo pelikulak ikustea.

- Noiz egon zara gure artean azken aldiz?

Urtarrilean bi asteko operaldia izan nuen, beraz bertara joatea erabaki nuen. Ez naiz nahi bestetan joaten, baina gauza garrantzitsuak ez ditut galtzen: Santixauak, San Martin, kuadrillako sagardotegia...

- Mallabira bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai, baina ez dakit noiz. Gustura nagoen bitartean hemen jarraituko dut.

Libe Solozabal



SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Naiara Bengoetxea plataformak salgai dituen banderoletako batekin.

Naiara Bengoetxea Gorritxategi, Ermua Zaldibar Argitu plataformako kidea:

“Bada ordua Euskal Herrian zaborraren kudeaketa ondo egiten hasteko”

Biologian lizentziatu zen, Ingurumen-Osasuneko goi teknikaria da eta gaur egun Biologia eta Geologiako irakasle lanetan dihardu. Naiara Bengoetxea Amañakoa da, baina 16 urte daramatza Ermuan bizitzen, eta Zaldibarko zaborteziaren hondamendia oso gertutik bizi izan du: haren aldamenean dagoen Eitzagako Etxebarri baserrikoa dauka ama. Ermua Zaldibar Argitu plataformako kidea da, ezbeharra eta gero sortutako herritar taldekoa, alegia. Honen helburuak: Eitzagako hondakindegia iragana, oraina eta etorkizuna argitzea.

- Nortzuk osatzen duzue Ermua Zaldibar Argitu plataforma?

Oso talde heterogeneoa elkartu gara: etxeoandre, irakasle, ingurugiro teknikari, abokatu, jubilatuz, kimikari, ekologista..., baina denok dauzkagu kezka berberak: desagertutako bi langileak (Alberto eta Joakin), guztion osasuna, eta krisi ekologiko honen aurrean irtenbide egokiak eta erantzukizunak exijitzeko beharra. Talde irekia gara, eta Lobianon biltzen gara astean behin edo birritan. Koronabirusa dela-eta, egunotan dinamika hau eten behar izan dugu, baina baliabide digitalen bitartez lanean jarraitzen dugu.

- Bilera gutxi egin dituzuen arren, argi dituzue zuen eskaerak...

Orain arte hiru bilera egin ditugu, eta bigarrenean dekalogo bat zehaztu genuen: gure oinarriekin eta Eusko Jaurlaritzari egiten dizkiogun eskaerekin. Dena den, eskaerak horiek aldatu daitezke etorkizunean suerta daitezkeen gertaeren arabera.

- Zertan dabilta egunotan zabortegean?

Txosten batzuk argitaratu dira, zabortegean zer egingo den jasotzen dutenak. Legedia jarraituz, zaborra bertan gelditzea erabaki da. Horrelako hondamendi ekologiko bat gertatzen denean, erabakiak bizkor hartzen dira (eta kasu askotan, gaizki), eta ez da ingurumen-inpaktuaren azterketarik egiten. Ingurumen Sailak esandakoaren arabera, bi zelda eraikiko dira, betetzeari zigorik direnak. Bat nire amaiaio zen Etxebarri baserritik

oso-oso gertu, eta 140.000m³ lur kutsatu gordeko ditu. Izan ere, lur eremu baten jabetza kenduko diete Etxebarri base-errikoiei zelda hori eraikitzeko. Bestea gorago egongo da, eta 160.000m³ jasoko ditu. Baina horrez gain, milaka eta milaka m³ lur kutsatu geratuko da zabortegean, eta ez dakigu horrekin zer egingo duten. Gaia oso larria den arren, oraingoz ez dute ezer zehaztu.

- Nola eraikiko dituzte zelda horiek?

Mota ezberdinetako zeldak daude, eta ez dute zehaztu nolakoak egingo dituzten. Zulo sakonak egitea aukera bat da, eta dena behar bezala babestea, azpitik zein alboetatik, inolako filtraziorik ez egoteko. Sartuko den lurra amianto, galdategi, burdintza, paper-fabriketako hondakinekin eta bestelako gaiekin kutsatuta baitago. Kamioi asko Espainiatik, Frantziatik eta Alemaniatik etortzen ziren, eta ez dakigu haiek zer ekarri duten. Eusko Jaurlaritzak berak ere ez daki benetan zer dagoen Eitzagako zabortegean, ez dituelako kontrolak ondo egin. Orain argitzen ari dira gauzak.

- Zeintzuk dira kontrol horiek?

Verter Recyclingen ezaugarriak dituzten zabortegeak hilerro txosten bat aurkeztu behar izaten dute Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailean, eta bertan zehaztu zein zabor jaso duten, haren jatorria, kopurua, zaborrak tratamenduren bat izan duen eta jasotako zaborren kudeatzailea zein izan den. Hori guztiori erregistratuta egon beharko litzateke. Eta



argi geratu da erregistro horiek gaizki egin direla.

- Egokia iruditzen zaizu hartu duten erabakia?

Erabakiak bizkorregi hartu dira, ingurumen-inpaktuaren baloraziorik egin gabe, eta argi dago Eitzagako baserri batzuk zeldetatik gertuegi daudela. Zaborra bertan kudeatuko da, ez delako batere justua ez segurua zabor kutsatu hau Mallabira, Zallara edo Gasteizera eramatea. Baina Eitzagan gauzak ondo egiten hasteko ordua da, eta horretarako ia dena hustu beharko litzateke, sistema guztiak konpondu (lixibiatuarenak eta metanoarenak), dena behar bezala inpermeabilizatu, eta gero betetzen hasi modu egokian, zatika. Baina hori egitea oso lan zaila da, urteetako lana.

- Zein epe aurreikusi dute lanok egiteko?

Esan dutenaren arabera, 4 hilabetetan eraikiko dituzte bi zeldak eta, bitartean, ehundaka kamioi dabilta egunero Sallabentetik lur kutsatuekin. Eitzagatik jaitsi, hurrez betetako eskola ondotik igaro, eta Olarreagan

sartzen dira berriro ere, zabortegeko beste leku batean kamioiak deskargatzeko. Edo alderantziz. Epe laburrean zabortege barruan pistak egingo dituztela argitaratu da, zaborrekin aurrera eta atzera ez ibiltzeko, baina bitartean Eitzaga eta Sallabenteko bizilagunak egoera larri eta tamalgarri hau ari dira jasaten.

- Airearen kalitateari buruz, zer diozue?

Egunetan zehar suteak egon ziren zabortegean, eta usaina (beraz, kutsadura) oso nabaria izan zen inguruko herrietan. Dena ondo zegoela esan ziguten hasieran, analisiak emaitzak jaso aurretik. Gero, 8 egunetara, dioxina eta furano kopurua ikaragarria zela. Aireko kutsadura zuzenean dago lotuta beste kutsadurekin. Euria egitean, aireko gai toxikoak lurrera edo uretara jausten dira, eta ur eta lurretik, landare eta animalietara pasa daitezke. Hortaz, hemen ez da airea bakarrik kutsatu.

- Suteak itzalita, akabo arriskua?

Ezin horrelakorik ziurtatu. Ezbeharrak gertatu baino le-



ASIER ITURRIAGAGOITIA BARAJUEN

2020ko martxoaren 4an

MALENGO ELKARTEA



hen, behin baino gehiagotan egon omen dira suteak eta istripuak zabortegean, eta inork ez du horren inguruko berririk eman inoiz. Verterrek irregulartasun asko zeuzkan hasieratik; azkenak, besteak beste, metanoa eta beste gasak ondo ez kontrolatzea. Hemendik aurrera ere lur-jausiak edo suteak egon daitezke, baina enpresa pribatu bat denez, baliteke berriro ere herritarrok ez informatzea.

- Egiten ari direnaz zer nolako informazioa dute bizilagunek?

Bat ere ez. Eitzagan gauzak ezkutuan egiten ari dira, dena inguratuta daukate. Gu ezin gara astitaren baserrira joan, ertzainez josita dagoelako. Arduradunek ez dute azalpen zehatzik eman, ezkutatuta eta isilik daude. Lotsagarria da erakutsi duten jarrera. Herritarrok informazio gardena behar dugu.

- Zure ustez ingurugiroari behar beste garrantzia ematen zaio?

Ez, eta pena bat da. Euskal Herrian ez da ingurugiroa baloratzen. Ez daude ingurumen adituak Udaletan, mankomunitateetan, Aldundietan. Laborategiak ere gutxi, ikerketa zentroak gutxiago. Ez da ingurumenean inbertitzen, eta errealitate hau agerian geratzen da horrelako ezbeharrak gertatzen denean. Zaldibarren gertatu dena eredu izan beharko litzateke beste herrietan horrelakorik berriz ez gertatzeko.

- Zaborra kudeatzeko egungo eredu egokia da?

Zaborra negozio ikaragarria bihurtu da. Euskal Herriko zabortege gehienak pribatuak dira eta, horrez gain, Zubietako Erraustegia daukagu: penagarria. Erabaki politikoa da zaborraren kudeaketa guztia, edo ia guztia, enpresa pribatuen eskuetan ustea: onartezina. Zabortege publikoak izan beharko lirateke, Eusko Jaurlaritzak izan beharko luke guzti honen kontrola eta zehatz-mehatz

ERMUA ZALDIBAR ARGITU PLATAFORMAREN DEKALOGOA

1- Zabortegean lurperatuta jarraitzen duten Albertoren eta Joaquinen bilaketari lehentasuna ematea, lanak azkartuz, teknikarien arteko koordinazioa hobetuz eta erakundeek familiei behar duten babesa, laguntza eta informazioa eskainiz.

2- Zabortegean lanean diharduten langileen eta inguruko biztanleen segurtasuna bermatzea.

3- Zabortegean gertatutakoari buruzko informazio zehatz eta gardena izatea. Zabortegean zer dagoen garbi esatea eta hondamenditik gertu dauden herritarrentzat eta ekosistemarentzat zer ondorio izan ditzakeen argitzea.

4- Urteetan zehar inguruko lur, aire, ur, animalia, barazkien kalitatearen analisi sistematikoak egitea agentzia independenteetan, eta herritarro informazio guztia era egoki eta ulergarrian helaraztea.

5- Zabortegearen oraina eta etorkizuna argitzea. Bertan gertatzen ari dena eta egiten ari direna esparru ezberdinetan azaltzea: kudeaketa, konponbidea, zabortegearen inguruko jarduerak...

6- Zaldibarko zabortegearen jarduerak betirako etetea.

7- Erantzukizunak eskatzea, bai enpresa arduradunari eta baita Eusko Jaurlaritzari ere.

8- Gizartearengan, zaborraren gehiegizko ekoizpenaren inguruan trantsizio soziala birplanteatzea, herritarrengan pentsaera aldaketa bat sorraraziz.

9- Egungo gizarte industrializatuan, hondakin toxikoak ezabatzeko trantsizioarako alternatibak bilatzea.

10- Herritarrak ohartaraztea inguruan ditugun beste zabortegeez (Mallabia, Ermua...).


jakin haietan zer gordetzen eta gertatzen den. Bada ordua zaborraren kudeaketa ondo egiten hasteko. Jasangarritasuna bultzatzen duten benetako politikak behar ditugu. Euskal Herrian birziklapen tasa penagarria da, ez

dago ia birziklapen zentrorik, ez dira gaiak berrerrabiltzen, eta batez ere ez da zaborra murrizteko saiakerarik egiten. Zeren benetan, sortzen ez den zaborra da zaborrik onena.

Dorleta Vidal

FEREDU

SOLUTIONS S.L.



* HEZETASUNAK

* ERREHABILITAZIOA

* INPERMEABILIZAZIOAK

* MANTENIMENDUAK

* IGOGAILUAK

* ERREFORMAK

* FATXADAK

* ITE

* TEILATUAK

* GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

Eneko Larrea, Espainiako txapeladuna altuera-jauzian 18 urtetik azpikoetan:

“Nire helburua da egunetik egunera hobeto egitea”

Espainiako altuera-jauzia txapelketa irabazi du Eneko Larrea mallabitarrak martxoaren hasieran, 18 urtetik azpikoen kategorian eta pista estalian. 1,96 metro neurtzen ditu, eta 1,97 metroko langa gainditzea lortu zuen Valentziako proban.

- Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzeko?

Duela 6 urte, 10 urterekin. Aurretik saskibaloian eta eskupilotan aritzen nintzen. Atletismoan hasteko saskibaloia utzi nuen, eta gero eskupilota ere bai.

- Zergatik aukeratu zenuen?

Nire familian asko hitz egiten da atletismoaz, eta ia senide guztiak diziplinaren batean aritu izan dira. Aitak berak altuera-jauzia egiten zuen. Baina horrez gain, oso gustukoa daukat.

- Zenbat entrenatzen duzu?

Astelehenetik ostiralera entrenatzen dut Antonio Cid ermuarrarekin Betiondon. Eta

asteburuetan txapelketak izaten ditut. CD Eibar taldeko kirolari naiz, baina Bizkaiko txapelketetan ibiltzen naiz.

- Kirol hau praktikatzeko ezinbestekoa da altuera-jauzia?

Bai, baina botea edukitzeak eta erreaktiboa izateak ere garrantzi handia dute. Valentziako podiumean hirugarren geratu zenak nik baino 30 zm gutxiago neurtzen du, eta bigarrenak 20 zm, baina oso teknika ona daukate. Nire entrenatzaileak dio kirol honetan ona izateko norberak bere altuera behintzat gainditi behar duela. Niretzako zaila zen, baina lortu dut.

- Nola egin behar da salto?



Saltoan hiru fase daude: lasterketa, batida eta airea. Lasterketa txarto egiten baduzu, txarto joango da gaitzazkoa. Batidan tentsioan egon behar duzu, eta behin airean, beste hiru kontu zaindu behar dira: sorbaldak ahalik eta gehien igo, ipurdia estutu eta hankak igo, hori da oinarritzakoa.

- Noiz daukazu hurrengo txapelketa?

Ekainean Espainiako txapelketa burutuko da berriro,

baina aire zabalean. Proba hori da urteko garrantzitsuenak, eta kirolariak horretarako prestatzen dira urtean zehar.

- Urduri egoten zara?

Apur bat bai, baina nahiko motela naiz. Urduritasuna kontrolatzea onuragarria da.

- Zein da zure helburua kirolean?

Egunetik egunera ahal den hoberen egitea. Atletismoaz bizitzea oso zaila da.

Dorleta Vidal

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI
www.spara.es
info@spara.es
Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

FUB
Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Fernando Urizar Barandiaran
Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

Elikadura burujabetza sustatuko duen ZukAldatu proiektua aurkeztu da



“Berton bertakoa eta sasoiak sasoiak” lemapean, ZukAldatu ekimena aurkeztu zen Ermuan martxoaren hasieran. Egungo elikadura eredua aldatu nahi duten bost ermuarrek sortutako proiektua da, eta bultzatu nahi ditu bertoko eta sasoiak produktuen kontsumoa, osasungarritasuna, nekazarien lan baldintza duinak eta lehen sektorea. Horretarako inguruko baserriarren produktuak herritarren eskura ipiniko dituzte (frutak eta ortuariak, gazta, jogurtak, arrautzak eta okela, besteak beste). Proiektu soziala da, eta harekin bat egin nahi dutenek aukera izango dute bazkide izateko, edo erosle arruntak izateko.

Aurkezpenean jakinarazi zutenez, maiatzean edo ekainean zabalduko dute denda Torrekua kalean, baserriarrek uztak jasotzen hasten direnean.

Berbalagun egitasmoak lagun ezkutu erraldoia egingo du apirilaren 29an



Ermuko 100dik gora berbalagun elkartuko dira apirilaren 29an, asteazkena, Berbalagunek aurten izango duen berritasun handiena burutzeko: lagun ezkutua. Horren helburua izango da parte hartzaileek elkar ezagutzea, euskal sarea handitzeko, euskaraz dakien ermuar gehiago identifikatzeko, eta ahozko komunikazio ohiturak aldatzeko, egitasmoaren koordinatzaile Juanmi Bravoren esanetan. Apirilaren erdialdera, Ermuko berbalagunei herriko beste berbalagun baten izena helaraziko zaio. Pertsona horri 5 eurotik beherako opari bat egin

beharko dio jarduera egunean. Beraz, bertara joan eta pertsona hori topatu beharko du bertan oparia eman ahal izateko. Oparia egiten duenak ere beste pertsona bat izango du bere bila oparia emateko. Horrenbestez, denak izango dira oparilariak eta opari jasotzaileak. Ezagutze hori ordubeteko epean egingo da eta, horretan laguntzeko, “tabernatxoa” ipini dute antolatzaileek. “Parte hartzaileek oparia jaso-egiteaz gainera, trago eta mokadutxoa izango dute doan. Horrez gain, musika eta bestelako opariak izango dira denontzat”, dio Bravok.

ZAIDA FERNÁNDEZ ERMUARRAK LIBURUA IDATZI DU

Emakumerik gabe, Eibar ez litzateke gaur egungoa izango izenburua duen liburua kaleratu berri da, eta bertan elkarlanean aritu dira Zaida Fernández ermuarra, Savina Lafita Sole eta Luz Maceira Ochoa. Eibarko Emakumeen Mahaia eta Berdintasun Zerbitzuak sustatutako liburu hau “ez da lan historiko bat, oroimen-lana baizik. Gaiari testuinguru historikoa ematen diogu, baina parte hartu duten emakumeen testigantzak jasotzen ditugu batez ere”, adierazi du Fernándezek.

FOLKEZBLAI LEHIAKETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO

Ermuko Udalaren Kultura Sailak, herriko folk taldeen laguntzarekin, martxan jarri du XV. Folkez Blai lehiaketa. Parte hartu nahi duten taldeek 4 abesti grabatu beharko dituzte, eta Kultura Sailera bidali maiatzaren 15a baino lehen. Bi irabazle egongo dira, eta 3.000 eta 1.500 euroko sariak jasoko dituzte. Oinarriak Ermuko Udaleko webgunean ikus daitezke.

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

Bitsi-denda Tailor-propioa Edojurdenda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELKETAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNAK

PROBLEMA 3-943170563
ERMUA

ZERMIK

SISTEMA ELEKTRIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen inženiaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Emakume futbolari aitzindariak

Ermuko emakumezkoen lehen futbol taldeak ibilbide motza, baina gogoragarria du. Bere entrenatzaile eta jokalarri izandako batzuren ahotik sorreraren arrazoiak eta egindako bidearen zertzelada batzuk jasotzen ahalegindu gara.

1 971. Ordura arte andra arteko futbola ez zegoen lar hedatuta, baina une horretan, boom moduko bat tarteko, han-hemenka talde desberdinak bistaritzen hasi ziren. Ermuan espontaneo samar sortu zen bat, ermuar eta mallabitarrez osatutakoa.

Herriko Scout taldeko partaide ziren gazte asko, eta akanpadarako materiala erosteko premiaren aurrean, zer egingo eta zer ez egingo, diru-iturri bezala nesken arteko futbol partida bat antolatzea bururatu zitzairen. Maiatzaren 26an El Correion idatzitako kronikan Luis Mari Izagirre "Herrero"k horrela jasotzen zuen: "Bezperetarako ikusmira handia zen, baina inoiz ez genuen pentsatu hainbeste jende joango zenik futbol-zelaira. Zalan-

tzarik gabe, hauxe da San Pelaiok izan duen sarrerarik handiena, zelaia inauguratu zen eguna kenduta".

Amorebieta izan zuen Ermuak aurkari eta 0-3 irabazi zuen talde bisitariak, zeren "Herrero"ren berbetan "esperimentzia handiagoa zuten. Halere, ermuarrek oso ondo defenditu zuten eta ez zuten inoiz etsi".

Lokatz artean

Miren Eburne Elejondori irribarrea datorkio orduko eguna gogora ekarriz: "Nik berez beste ardura batzuk neuzkan, baten bat baina gaixotu-edo eta han irten behar izan nuen! Sekula baloi bati ostikadatxo bat eman barik, nire ardura barkarra zen baloiak ez ematea eta haren aurretik nindoan, antxixiketetan! Gure aitxa ikustera etorri zen eta... bizi



1971ko maiatzaren 23an San Pelaioko zelaian Amorebietaren aurka jokaturako partiduko futbolari ermuar eta mallabitarrak.

guztirako entzun behar izan nuen, ha zelako partidua egin nuen, eskerrak sartu nintzela eta horrelakoak! Ene, zenbat barre! Gogoa dut astean zehar euri itzelak egin zituela eta San Pelaiok kakatza bat zela. Alvaro Esteban medikua ere bertan egon zen eta taldekide batzuei, jausi eta min hartuta, bendak-eta lotzen ibili zen. Gure aitxari esan zion nik ez nuela tiritira erdirik ere behar. Baiba, denak lokaztuta amaitu zuten eta ni garbigarbi, ez nuelako baloirik ukitu! Gogoratzen dudana baikoitzean...".

Entrenatzaile lanetan Manolo Alvarez aritu zen eta gogoan ditu ere zelaiaren baldintza eskasak: "Putzu mordo egin ziren eta baloia basatzen iltzatuta geratzen zen, atera ezinik. Baina kristoren giroa gogoratzen dut, jendetza ikaragarria!". Ekipamendua Ermua taldeak eman zien, kamiseta gorria eta praka urdina eta Manolok, bere aldetik, jokatzeko gutxieneko jarraibide batzuk, baina bere hitzetan, ez zeuden jokora ohituta, batzuk estreinako aldiz jartzen ziren baloi baten atzean. "Neskak izanda denbora-pa-



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



ALBOKA



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

sa gisa ere futbolera jolasteko aukerarik ez zeukaten, gu mutilok ume-umetatik plazan edo bestelakoetan ahal genuen bezala, eta gainera beraiek kirola egitearena ez zegoen ondo ikusita". Sasoi honetakoak dira Futbol Federazioko lehendakariaren berrik: "Ez nago kontra, baina ez zait gustatzen. Ez dut oso femeninoa ikusten estetika-aren ikuspuntutik. Emakumea kamiseta eta prakak jantzita ez da egoki ikusten. Edozein jantzi erregional hobeto jarriko litzaioke".

Lagun artekoari jarraipena emanez, partidua amaituta talde biak herriko erdigunera etorri ziren. "Txantxiku tabernan luntx zoragarria eman ziguten talde bietako neskei. Oso polita izan zen!", gogoratzen du Miren Edurne Elejondok. Blanki Iturriagoitia ere

futbolarien tartean egon zen eta berarentzat ere "gauza polita izan zen Scout-eko umeentzako zeozer egiteko aukera hori!". Sarrerekin diru piloa atara eta hari esker karpin-dendak, lo-zakuak, karpin-gasak eta akanpatzeko abarrok erosteko aukera izan zuten herriko gazteek.

Jarraitzeko ilusioz

Debut eguneko arrakasta ikusita, jokatzen jarraitu zuten, emakumezkoen futbolak bizi zuen loraldiak animatuta. Ermuan 18-20 neska batu baziren, inguruko herrietan beste horrenbeste gertatu zen; horrela Eibar, Ondarru, Mutriku, Markina, Elgoibar eta Zornotzako taldeak izan zituzten aurrean. Partidu batzuk jokatu ostean, Ignacio Alberdi arduratuko zen neskek entrenatzeaz, Manolo Alvarezek mutilen taldearekin

jarraitzen zuen bitartean.

Mari Nieves Gastón Ermua taldeko hiru futbolarien arreba zen eta emakumeen taldeko kapitaina izendatu zuten. Hiru seme-alaben ama ordu-rako, *El Correak* eginiko elkarriketa baten honela zioen: "Edozein herritan jokatzeke prest gaude, partidua helburu benefikoeekin bada". Eta baita beraien asmoa zela "emakumezkoen kirola bultzatzea". Bereziki gogoratzen du Markinan jokatu zuteneko norgehiagoka eta bertako mutilek hegaletik egindako barre-ak, eurak praka motzean eta baloiari segika ikustean. "Neskak futbolien?" esaten zutela harrিতuta eta isekaz. Txarto ikusia eta gainera debekatuta. Esaterako, Eibarko Ipuruan jokatutako hiru partiduetako baten ez zuten jokatzeke baimenik izan eta debekuaren berri amaieran jakin zuten jokalariek.

Zailtasunak zailtasun, aurrera jarraitzeko gogotsu zeuden arren, egitura finko bat falta zen, esaterako partiduen antolaketa eta taldeen arteko liga bat bermatuko zuena. Eta akabera etorri zen. Manolo Alvarezen iritziz, "ekipoa sortu zen espontaneotasun berberarekin amatatu zen. Ez ilusioa eta indarra falta zelako, ez. Bai-

na eutsi ezinekoa zen, ze ez zegoen sostengurik: joan-etorrietarako kotxeak behar ziren, partiduetara joateko jendea inplikatu... Gainera ez zeuden federatuta, ez zegoen partiduen antolaketarik eta horiek oztopo besterik ez ziren. Lagun arteko ekimen bezala jaio zena, halan amaitu zen, bizipen polit bat bezala". Futbolari izan eta bizi izandakoari esker-edo, batzuk futbolzale bihurtuko ziren betirako.

Gaur eguneko emakume futbolariak beste baldintza batzuekin entrenatzen eta jokatzen dute, bai ekipamendu, instalazio, prestaketa fisiko zein antolaketa kontuetan. Agian baina zer eskertu badute diktaduraren urte latzetan, baimenik barik eta ez begirik onenekin ikusita zeudela, berna bistan jokatzerara irtetzeko ausardia eduki zuten aitzindari haiei. Eta emakumeen artean kirola bultzatze asmoz landutako orduko hazitxoak, gaur egunean oraindik gizon eta emakume futbolarien arteko berdintasuna du erronka, izan soldatetan, profesionalizatze aukeretan, gizartearen kontsiderazioan, komunikabideen trataeran... Denon artean lortu baietz!

Estibalitz González



Ermua eta Eibar taldeak, Ipuruan jokatutako partidaren aurrean. Eibartarrek irabazi eta Norte Expres egunkariak emandako garaikurra eskuratu zuten.

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

PALACIOS SM
 EMPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
 GREMIOEN KUDEAKETA
 ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
 San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23


DG Horacio Decoración | VI Centenario 10 - Ermua
 943 03 15 80
 TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK | www.dghoraciodecoracion.com


CITROËN
AUTOS AMEDI
 Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
 Telefonoa 943 17 04 14

Ferreteria
ANBOTO
 Burdindegí
 Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
 egiten ditugu

 943 17 69 76
 607 33 11 77
 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Desiak
 PSIKOLOGIA
 ONGIZATE PERTSONALEKO ZENTROA
 Nahia Rojo Bustinduy
 Psikologoa eta Sexologoa
 Hitzorduak: 688 85 18 95

Maite Gorrotxategi Potente, erraketista:

“Erraketarako zaletasun handia nuen”

Neskatotxo zela hasi zen Eibarko Astelena frontoira joaten partidak ikustera eta hantxe maitemindu zen pilota jokoarekin. Honekin lotutako bere bizipenak ahaztezinak dira berarentzat eta fresko mantentzen ditu erraketista zeneko gogorapenak.

Sestaon jaio zen Maite Gorrotxategi Potente 1926ko urriaren 22an. Aita Luciok Bizkaiko Labe Garaietan egiten zuen lan. Ama Timotea, baina, gaitxo eta, umeen karga arintzeko asmoz, Eibarren seme-alabarik bako osaba-izeba batzuegana ekarri zuten Maite urte birekin. Luis Ibarra eta Basilisa Gorrotxategiren epeltasunean maitatua eta zaindua sentitu zen; haiek izango ziren bere gurasoak betirako eta bere berbei erreparatzerik besterik ez dago “nik tiari ama esaten nion”. Dena den, beti mantendu zuen harremana etxekoekin eta udan ere Sestaora joaten zen.

Eibarren Untzagan bizi ziren, Txoko taberna gainean. “Jolas zalea nintzen, lagun asko nituen eta *Al corro de las patatas* eta *Txingor* gainera ibiltzen ginen. Etxetik hu-

rran Astelena frontoia zegoen eta maite nuen bertara joate partidak ikustera”.

Buru belarri

36ko gerrak gogor astindu zuen Eibar eta, etxea apurtuta, Ermura bizi izatera etorri ziren. Pilota jokoak ume-umetatik erakartzen zuenez, entrenatzera joatea erabaki zuen. Frontoira asmo horrekin sartu zeneko eguna ondo gogoan du. “Juanito Navarro entrenatzaileak galdetu zidan *Nundik zatoz?* eta nik *Ermutik* eta horrela geratu nintzen “Ermu”rekin. Beti jokatu izan dut “Ermua” izenarekin”.

Egun horretan Felix Gallastegi pilotari handia zegoen kantxan eta Maiterengana joan zen. “Lehenengoz? berak. Baietz! nik. Eta erraketa nola hartu erakutsi zidan. Berak eskuarekin ematen zion eta nik erraketarekin, berak eskuarekin eta nik erraketare-

kin, frontisean beharrezko atzeko aldean, errebotean”.

Ez zeukan erraketa propiorik eta Juanito entrenatzaileak esan zion nork salduko zion. “Flora izeneko bati erosi nion, 8 pezetan. Luzaroan izan nuen nirekin, beste bat erosi nuen arte”. Ordu betez entrenatzen zuen, 9:00etako trena hartu eta Ermura lanera itzuli arte. Eta biharamunean goizeko 6:00etan gora berriro, trena hartu eta Astelena entrenatzera joateko.

Bere testigantza hori, ia urtebete egon zen entrenatzen, harik eta Barzelonako enpresaburu bat etorri zen arte, neska pare bat eraman nahi zituela-eta. “Guztiok deitu gintuzten eta banan banan Juanitorekin jokatu genuen”. Aukeratu eta bat izan zen. Barre egiten du izen bari nola esan zion gogoratzean: “Bixar Barzelonara noia!”.



Maite Gorrotxategi Potente Kataluniara iritsi berriren.

“Barzelonara?”. Ez zioten eragozpenik jarri, bere onerako zela irizten zutelako. Entrenatzen ikusten zuten eta etxekoak bazekiten edozein unetan *ojeadore* bat agertu zitekeela.

Lagun artean

Sabadellera eraman zuten, izen bereko frontoian jokatzeko. 15 urte betetzear zituen. Berarekin joandako Nieves Bereziartua eta Milagros Blasco eibartarrak pisu-kide eta frontoian aurkari, baina batez ere lagunak izan zituen. Hotel batean egon ziren lehenengo hi-

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

ileapaindegia
Silvia
peluquería
688819336

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

Dejáte QUERER
BERRIA ERMUA

TXALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGVAK**
943 030 299

Iberikoetan espezialistak

Maite

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

labetez eta gero Julianean, edadeko andra baten etxean. Bere akorduz 50 pezeta ordaintzen zizkioten hilean, garbitasun eta janariaren truk. “Gogoan dut kaneloi gozo-gozoak egiten zizkigula astean behin. Desiatzen! Ez genuen alkoholik edaten, ezta erretzen ere eta ondo elikatzen ginen, haragi onarekin eta abar. Orduan ez zegoen ez konplementu ez aparatko bitaminarik”.

Bere jokoaren gainean galdetuta, erraketista izateko zaletasuna dela printzipalena diosku. “Aurrelaria nintzen eta gogoan dut oinaztargi-sakea nuela, di-da! Nieves laguna atzelaria zen eta elkarren kontra jarri gintuzten sarritan; kantxatik ateratzen ginenean ahaztuta genuen jada, baina partidari zehar, irabaztera!”.



Maite Gorrotxategi ezkerrean, Nieves Bereziartua eta Charo Blasco makurtuta: aurkari eta lagunak.

Sabadellen jokatu ostean, Bartzelonako Sol y Sombran eta Logroñoiko Jai-Alai pilotalekuan aritu zen. Jokoari oso adi egon behar zirela azpimarratzen digu: “Jokoz jaisten bazinan, entrenatzera joan behar zinen. Izan ere, jokoan ondo geundenean, partidak irabazten genituen, eta kinielak ere bai. Guri kinielak interesatzen zitzaizkigun, soldatetik aparte ordaintzen zizkigutelako. Jokoa nahiko esklabo ginen, eta maila ez jaisteko adi egon behar ginen. Dena den, partidak irabazten genituenean, batzuetan apustulariek bonboiak bidaltzen zizkiguten; bagenekien norentzat ziren, baina ez norengandik zetozen. Baina ikusleen artean begi zorrotzak ere bazeuden eta akatsen bat egin ezker “Herrira!, Herrira!” oihukatzen ziguten”.

Polito irabazten zuen eta noizean behin izebari dirua bidaltzen zion postaz. Gogoan du zelari behin lehengusinari nylonezko galtza batzuk bidali zizkion, gutxiago apurtzen zirenak. “Kapritxoetarako ere ematen zidan: zapata batzuk, berokiren bat... Ez nuen etxera dirua bidaltzeko obligaziorik”.

Kirol honetan eskumuturrak, gerriak edo orkatilak gehien zerk sufritzen duen galdetuta, irribarretsu dinosku Maitek: “Sufritu? 16 urte genituen eta katagorriak bezala saltatzen genuen! Oina okertzen zela? Geldik sendatu arte! Erraketa gero pisutsua zenez, eskuetan pinu hautsezko erretxina ematen genuen, ez labantzeko”. Orkatila bihurrituak, kolpeak eta pilotakadak eguneroko ogia ziren eta frontoian bertan zegoen erizaintzan artatzen ziren.

Bitxia bere hilerokoaren gainean kon-



Pilotari lizentzia, 1943an Sabadellen luzatua.

tatzen diguna. “Sabadellera ailegatu nintzenean ez neukan erregelarik, ume bat nintzen, eta sendagileak injekzio bat errezetatu zidan. Hilabetera, ra! jaitsi zitzaidan eta handik aurrera hilero. Pilotari jokatu ahal izateko ezin nuen umea izan, emakumea izan behar nuen!

la lau urtez erraketista legez aritu ostean, “Ermua” Ermura bueltatu zen. La Habanan jaiotako Ademar Herrería eza gutu eta harekin ezkondu zen Sestaon 1949an. Ermuan Kaltxangon biziko ziren eta hantxe jaioko ziren Olga eta Ana alabak, gerora Ongarai auzora aldatuz. Joan deneko 23 urtetan Durangon bizi da, alabak, bi loba eta bi birloben arrimura, baina biziki maite du Ermura etortzea, goizez ahal bada, ze arratsaldez baino eza gun gehiago topatzen ditu kalean kontu batzuk esateko. Oraingoan bera izan da gu guztioi aukera eskaini diguna gertutik ezagutzeko bere kontuak, bere istorioa!

Estibalitz González

URRETA

burdindenda

<ul style="list-style-type: none"> * Etxea * Tresneria * Brikolajea * Ervailak 	<ul style="list-style-type: none"> * Giltzak * Sarrailagintza * Kit altzariak
--	--

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA



Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

OSASUNA · ESTETIKA
EDERTASUNA

Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

ANDRES ARANDA

- *Txikitako oroitzapenak dituzu Granadan?*

Bai, gogoan daukat egun guztia kalean ibiltzen nintzela, jolasten.

- *Aldaketa igarri zenuen?*

Bai, eguraldian batez ere.

- *Eta lagunak?*

Lagun asko nituen, eta haiekin egoten nintzen egun guztia. Baina oraindik ere harremanetan jarraitzen dugu, urtero edo ia urtero bertara noalako udan.

- *Lan bila etorriko ziren gurasoak...*

Kasualitatez izan zen. Eibarren familia genuen, eta lehenengo eta behin nire arreba etorri zen. Lanean hasi, eta lana zegoenez, aita etorri zen gero. Jarraian ama eta umeok.

- *Non ezagutu zenuen emaztea?*

Eibartarra da, baina Sorailuzen ezagutu genuen elkar.

- *Zenbat urte zabalik Komentukuako denda?*

24.

- *Zertan egiten zenuen lan aurretik?*

Beste denda bat izan nuen, ostatuaren ondo-ondoan.

- *Merkataritzara lotuta beti...*

Ez, 17 urterekin tailer batean hasi nintzen lanean. Soldadutza egin nuen gero, eta bueltatu nintzenez, 80. hamarkadako krisialdiarekin, ez zegoen lanik. Zerbait egin behar nuen, eta denda zabaltea bururatu zitzaidan.

- *Zer ordutan hasten zara lanean?*



Granadan jaio zen duela 58 urte, eta horietatik 50 Ermuan eman ditu. Bost anai-arreben artean erdikoa da. Ezkonduta dago eta seme bat du. Komentukua kaleko dendan mende laurdena egingo du laster.

8:00etan zabaltzen dugu denda, baina urte pilo batean 3:00etan jaiki behar izan naiz Mercabilbaora joateko. Astean behin joaten naiz orain Mercabilbaora.

- *Zer da lan honetan gehien estimatzen duzuna?*

Jendearekin hitz egitea.

- *Eta gutxien?*

Kontuak egitea.

- *Zein da zure bezeroaren profila?*

40 urtetik gorako jendea.

- *Garai txarrak dira merkataritza txikiarentzat?*

Bai, baina ez bakarrik erosketak ohiturak aldatu direlako. Arazo nagusia da denda txikiek ez dugula inolako laguntzarik, eta autonomoek zerga pilo bat ordaintzen dugu ezeren truke.

- *Lana bukatutakoan...*

Astean zehar trago batzuk hartzen ditut anaiarekin. Asteburuetan, Errioxako etxera joan ohi naiz.

- *Musika, zinea, telebista, irratia...*

Zinea.

- *Jateko?*

Barazkiak izan ezik...

- *Biziorik?*

Ez daukat bizioetarako denborarik.

- *Bertute bat?*

Osasun ona daukadala.

- *Eguneko momentua...*

Eguerdia edo iluntzea, ardo bat edatera noanean.

- *Erraz haserretzen zara?*

Ez, pazientzia nahikoa daukat.

- *Bizitzako egunik zoriontsuena?*

Ezkundu nintzen eguna.

- *Puntuala zara?*

Bai, eta gustatzen zait besteak ere puntualak izatea.

- *Zer berri irakurri nahiko zenuke?*

Mundua ondo doala.

- *Teknologia berrieekin...*

Mugikorarekin ondo konpontzen naiz.

- *Berriro jaioko bazina...*

Gauza batzuk aldatuko nituzke. Ikasi egingo nuke, metalarekin zerikusia duen zerbait, esaterako. Bala bat izan nintzen, eta orain badakit horrek zer dakarren.

- *Zer diozu zabortegiaz?*

Uste dut askok poltsikoak bete dituztela, eta gehiegikeriak egin direla. Haiek bilatu beharko dituzte konponbideak, ez guk.

- *Koronabirusaz?*

Gai honek gehiago kezkatzen nau, baina kasu honetan ere guk ezin dugu gauza handirik egin. Birusa Ermura badator Gasteizera heldu den bezala, gaixotzen joango gara bata bestearen atzetik.

Dorleta Vidal

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Elurretan blai!

Euskal Herrian eguraldia dago ero, batzuetan hotz eta bestetan bero, luzaroan ateri eta gero elur gehiegi.

Horregatik, eskiaren birusak kutsatuta eta kea eta usain txarrez nazkatuta, Somport aldera joan ginen gustura.

Txirrist eta plast, eskiatzen ondo ikasi eta gainera Athletic-ek partida irabazi, eguraldi okerra, baina txango ederra.



Animalia artean



“... kokororikoko-kikiri-rikiki... oilategian oilarrak kukurrukuku...”, “...gure katua pitxitxi lo eta lo dago beti!” zerrendak jarraitu dezake baina itxaron egin beharko dugu Anaitasuna Ikastolako umeok animalien bisita gehiago jasotzeko. Bi urteko ikasleok opozarren ibili gara gure

Purrutx oiloak zer jaten duen, non lo egiten duen... entzunez eta Bemba katua laztantzen ere asko gozatu dugu, bestela... begiratu argazkia! Egoera arraro hau bukatzean eta Ikastolara bueltatzean gustura jasoko ditugu bisita gehiago bi urteko geletan. Anima zaitezte!

Eider Gisasolaren bisita izan genuen Ikastolan

Emakumeen Nazioarteko Egunarekin lotuta (Martxoak 8a), martxoaren 12an Eider Gisasola etorri zen Anaitasuna Ikastolara, 1go, 2. eta 3. mailako ikasleei hitzaldi bat ematera. Eiderrek azaldu zi-

gun bere eguneroko lana baserrian nolakoa zen, pixkanaka bere familiarekin enpresa txiki bat sortu arte. Ardi gazta egiteko prozesua azaldu zigun eta probatzeko aukera ere izan genuen.





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44





Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

Dr.a. OLATZ GARCÍA ARREGUI C.O. nº 1264

- P.A.D.I
- IMO
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



Menuak. ospakizunak...

Erdikokale 11 · Tel. 846 666 533

Zaindu denok garen eta zu zeu ere zaren hori

"Bere baitan garbia denak garbitasuna zabaltzen du inguru guztian. Bere baitan zikina denak ez du zikinkeria besterik zabaltzen bazter guztietan. Ondo begiratu gero, dirudunak ez du errurik jendeak uste badu diru asko duelako zoriontsu dela bera. Dirudunak ez daki zergatik behar duen zoriontsua izan, bere egitekoa nonahi eta beti ahalik eta dirurik gehiena egitea izan-eta. Diruduna ez dabil jostaketan. Ez dabil kontu horiekin kantuan. Ez da zorionaz, maitasunaz, bakeaz, osasunaz eta horrelako huskeriez arduratzen. Baduelako premiatsuagorik, arras gehiago arduratu beharra diruaz zorionaz baino".

Ez dira nire hitzak, ez. Joxean Artzek 2016ko udan Zubietako Erraustegiari buruz iritzia eskatu ziotenean idatzi zuen testuaren hasierakoak dira. Beste behin ere, modu bikainean, egia borobila da dioena eta batzuek zertan ari diren eta guztiok ere zertan ari garen hausnartzeko balio beharko ligukeela uste dut.

Iritzi artikulua idaztera animatuko nintzen galdetu zidatenean, arin etorri zitzaidan gaia gogora. Eitzagako tragedia, Mallabiko Telefonía Dorrea, Gueñes-Itsaso Goi Tentsioko Linea eta horrek Mallabia herrian eta, batez ere, Aretxuako eta Areitioko auzoetan eta

baita Eitzagan bertan ere, dagoneko sortu dituen eta aurrerantzean ere eragingo dituen kalteak eta, orain, lerro hauek idazten ari naizen honetan, gure egunerokotan hain eragin zuzena eta bat-batekoa izan duen Koronabirusa puri-purian.

Iaz, orain urtebete justu, martxoko alean, pinu insigniaren gaitzaren harira ere aritu nintzen. Orduan gaitzak pinua eta gure basoak zituen ardatz eta orduan ere aipatu nituen krisi ekologiko globalaren kalteak eta, ardura maila ezberdinekin, denon erantzukizuna honetan.

Hara bada! Hemen nago berriro, hainbat gertaera berri eta beste batzuk ez hain berri denon gogora ekarri nahian. Izan ere, kilometro batzuk haratago edo hontzago edo eta munduko beste muturrean, oso modu zuzenean eta zakarrean pairatzen ari garenak dira denak.

Eta bai, batzuentzat gertaera oso ezberdinak irudi dezaketen hauek, mundu ikuskera bera dute oinarrian: neoliberalismoa, mundu mailako kapitalismoaren fase erasotzaileena. Demokrazia eta giza eskubideen aurrean justifikatzeko beharrik sentitzen ez dutenen egiteko modua. Etekin handiena helburu izanik, natura, ingurugiroa, pertsonak, herriak eta



Ainara Riveras

elkarbizitza kontuan ez dituen sistema suntsitzailea.

Horregatik da hain garrantzitsua gure egunerokotan elkartasuna praktikatzea, alboan dugunaren tokian ipintzea, batzea, mobilizatzea eta dagokiguna aldarrikatzea. Zu eta ni, ni eta zu, berdinak garela bizitzaren aurrean. Gaur albokoaren etxean gertatzen ari den hori zuri ere gerta ahal zaizulako hurrengoan.

Oraindik bide luzea geratzen den arren, Mallabian herritarrek Telefonía Dorrea, momentuz, geratzea lortu zuten abenduan eta, dorrearen aferarekin batera, ingurugiro eta herritarren osasun eskubideen alde lanean jarraitzen dute. Zaldibarko hondamendiak agerian utzi du etekin handiena lortu nahian edozer egiteko kapaz diren bihozgabeen iluntasuna. Herritarrek eskubide guztia dugu egia osoa jakiteko eta dagokienei erantzukizunak eskatzeko. Horretan ere herritar plataforma ezberdinak hasi dira lanean.

Bakoitzak ahal dugun moduan eta neurrian, beraz, eta denok batera, guk zorionaz, maitasunaz, bakeaz eta osasunaz arduratu nahi dugulako, zaindu denok garen eta zu zeu ere zaren hori.

“ Oinarrian neoliberalismoa dago, mundu mailako kapitalismoaren fase erasotzaileena ”

 NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

 IZASKUN TXURRUKA

Goenkale 9 Baxo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

 SEHIGA

PROTECCION LABORAL
TAN BABESEPAKO
ORNIDURA

Goenkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

LAN ESKAINTZAK

Ile-apaintzailea behar da Elgoibarko ile-apaindegi baterako. Asteburuetarako.
© 943 24 62 25.

Higienista edo laguntzailea behar da hortz klinika batean. Berehala lanean hasteko. Idatzi helbide honetara: hortzclinika.06@gmail.com



Martxoaren 29an
Zorionak zure 3. urtebetetzean neska handi! Ondo pasa eguna eta patxo pila bat zure familiaren partez.



Otsailaren 12an
Mare, zorionak!! 10 urte jada! Musu asko eta besarkada erraldoi bat etxekoan partez. Askok maite zaitugu, politxori!!!



Apirilaren 8an
Zorionak Araia!!!! Urtetxo bat betetzen du gure etxeko txikitxuak!! Besarkada handi bat familia osoaren partez! Askok maite zaitugu pitxin.

LAN BILA

Zazpi urtetako esperientzia eta Eusko Jaurlearitzako titulazioak dituen emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko. Orduka, gauez zein egunez.
© 603 514 085.

Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka.
© 681 310 989.



Apirilaren 25ean
Zorionak Naia zure 5. urtebetetzean! Oso egun polita izan aita eta amaren partez! Askok maite zaitugu! Patxo handi bat!



Apirilaren 12an
Zorionak Nahia! Indarrez egiezu putz 5 kandelatxoei! Jarraitu horren maitagarria eta alai izaten! Patxo eta besarkada erraldoi bat, Oihanen partez bereziki! AMZ.




Martxoaren 18an
Zorionak Pol!!!! Zure bigarren urtebetetzean muxu potolo bat familia guztiaren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: **Apirilaren 21a.**

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral
arral97.com
Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nitida
arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa
poteoan
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83


Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**MALLABIA
1971**

Argazki hau 1971-1972 ingurukoa da eta Mallabiko eskola zaharreen aterata dago. Egun liburutegia dagoen tokian zegoen kokatuta eskola. Argazkian neskek ageri dira bakarrik, garai hartan neskek eta mutilek banatuta ikasten zutelako. Maistra, nahiz eta bertan ez dan agertzen, M^a Concepcion Urionabarrenetxea Arriaga zen. Argazkian, zutik ezkerretik hasita: Agustina Fernandez, M^a Jose Limia, Pilar Milikua, Laura Ortuzar, Amaia Garitagoitia, Rosa Garrido, Marivi Carrillo, Blanca Arriaga, Asun Abaskal, Josefi Ormaetxea, Nieves Ruiz, Ana M^a Mendibe, M^a Luz Garitaonaindia, M^a Pili Garcia, M^a Carmen Sañudo, Miren Zubiate, Izaskun Txurruka, Inma Zelaieta, M^a Mertxe Olartekoetxea, Isa Ruiz. Aurrean makurtuta: Idoia Arancibia, Lita Limia, Maribel Garcia, M^a Carmen Gonzalez, Izaskun Intxaurrea, Asun Mendibe, Trini Cid, Jaione Bizkarra, Maribel Moreno, Espe Pradera eta Angelines Carrillo.

**OHARRA:**

2019ko abenduan kaleratutako argazkian hainbat izen falta zitzaizkigun. Irakurleoi laguntza eskatu, eta datu interesgarri asko jaso ditugu bueltan.

Aipatu genuen bezala, argazkia despedida batean atera zen: Conchita Churrucaren despedida egunean, hain zuzen ere. Gonbidatuak Eibarko Armeria Eskolako eskaileretan batu, eta argazkia atera zien Martin Romaratek, Conchitaren gizona izango zena. Horrela jakinarazi digu bikote honen alaba Arratek. Honen arabera ere, Francisca Lete Ugalde da falta zitzaigun izena, Eibarko Sumendixa baserrikoa. Bestalde, Mari Asun Milikua Uzuriagak argitu zigun argazkian agertzen den Justinaren abizena Irastorza dela.

ERMUA 1953

Tente, ezkerretik eskumara Valentin Lejardi, Juan Azpiri eta Juanito Astarloa. Makurtuta, Jose Luis Bilbao eta Alberto González kostaldera egindako egun-pasa batean.

Proba-Leku

Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

Aldizkaria doan
jaso nahi duzu?

943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS

FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.fisioterapiamanualartros.com

LONDON
-taberna-

DROGETEN

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

ITTURRI

Non irakurtzen duzu?

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hertz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

Etxean doan jaso nahi?

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hilerro-hilerro etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA




Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eitxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 96 60
persianasorbe@gmail.com

ETXETRESNAK

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA
**BETA**
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
• Proiektuak • Kalefakzioa
• Instalazioak • Gaueko tarifa
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak
Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

GARBIKETA

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK
Tel: 94 659 01 41 - 618 89 29 60
E-maila: info@enolimp.es
48620 Ermua (Bizkaia)
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com